



NAZIOARTEKO JARDUNALDIA

Bizitzarako Alternatibak*

JARDUNALDI FEMINISTAK 2024



Gidoia:

Verónica Rodríguez Cárdenas eta
Xiuijng Brittney Feng

Grafikoa:

Verónica Rodríguez Cárdenas

Diseinu grafikoa eta maketazioa:

Karin Hernández

Koordinazioa:

Lumaltik Herriak

Argazkiak:

Marina Gallardo Izquierdo

Testu zuzenketa:

Sara Plaza Écija

Hitzaurre

Honako hausnarketa eta ondorioak Gipuzkoa eta Abya Yalako kolektiboen esperientzietatik partekatzeko antolatutako topagunean jaso ziren. Izan ere, kolektibo horiek, bizi duten errealitate desberdinak kontuan hartuta, zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen dituzten alternatibak eraikitzen dituzte. Elkartrukerako jardunaldiak izan ziren, eta, bertan, mundu justuago bat nola sortu dezakegun hausnartu zuten kolektiboki.

Jardunaldiak bi egunetan banatu ziren, 2024ko maiatzaren 23an eta 24an, Donostian.

Erdialdeko Amerikako defendatzaileak

Ikertzailea, kazetaria, hezitzailea, psikoterapeuta energetikoa eta sexualitate libreen aldeko aktibista. Birkonexio pertsonala sustatzen du, beste pertsona batzuekin eta ingurunearekin, Bizitza Osoa lortzeko. La Cuerda elkarteko kidea da. Sistema bidegabe eta zapaltzaile baten aurkako asaldura aldarrikatzen duten hainbat emakumeren elkarte feminista da, pentsamendu kritikoa eta ekintza indibidual eta kolektiboa sustatuz, sentipenak mugiarazten dituzten metodologiaren bidez.

**Paula Irene
Del Cid Vargas**

Antolaketa
La Cuerda

Iximulew,
Abya Yala



Gizon trans hondurastarra eta Giza Eskubideen defendatzailea. Gaur egun, KERESeko behatokia koordinatzen du, neska, nerabe eta emakumeen indarkeriazko heriotzen analista gisa aritzen da, eta teknologia-teknikari lanak egiten ditu Cattrachas sare lesbikoan. Cattrachas erakunde lesbiko feminista bat da, Hondurasen LGBTI pertsonen giza eskubideen defentsan lan egiten dena.



Trans Reinas de la Noche (OTRANS-RN) erakunde zibilaren ordezkari legala eta nazionala Amerikako Estatuak Erakundearen aurrean (OEA). Guatemalako emakume trans-en eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak sustatzeko eta barneratzeko proiektuaren nazio mailako koordinatzailea. OTRANS-RN

Trans, LGBTIQ+ eta Guatemalan bizi diren pertsonekin lan egiten duen erakundea da. Bere kideen autonomia, genero identitatea eta Transfeminismoa ezagutzea nagusitzat dituen gizarte mugimendua.





**Illiana
Tzin Quixchan**

Asociación de
Mujeres de
Petén Ixqik

Petén,
Guatemala




Sendatzailea, gizarte langilea eta emakumeen giza eskubideen defendatzailea. Emakumearen Foro Nazionaleko kidea. Petén Ixqik-eko Emakumeen Elkartearen kidea eta sortzaileetako bat da, askotariko emakumek osatutako erakundea da, emakumeen eta neskatxen giza eskubideen alde lan egiten dutenak. Indarkeriatik bizirik atera diren emakumeei laguntza ematen diete, eta Petengo departamentuko identitate eta baldintza ezberdinetako emakumeen Ongi Bizitze ereduari laguntzen diote, benetako demokrazia generiko bat eraikitzeko helburuz. ✧

Natura zaintzeko eta berreskuratzeko lan egiten duen emakumea. Maia herriaren ezagutzaz baliatuz sendabelarrekin sendatzen du bere bizitza espirituala. Mexikar Indigenen Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Erakundeko (DESMI) emakume eta gizon mestizo eta indigena nekazariekin egindako lan komunitarioaren eskualdeko arduraduna da. DESMI erakundeak Chiapaseko Goi, Ipar eta Hegoaldeko eskualdetako komunitate indigenen prozesuak indartu nahi ditu, Ama Lurraren eta lurraldearen defentsan eta zaintzan genero ikuspegia azpimarratuz.

**JUANA
GARCÍA FLORES**

Antolaketa
Desarrollo
Económico y
Social de los
Mexicanos
Indígenas

Chiapas,
México






Lehen eguna: maiatzak 23

Lehen topaketa Teila Fabrikan egin zen, Egia auzoan kokatutako ekonomia sozial eta eraldatzaileko proiektuetarako lan kolektiborako espazioan. Jardunaldia bi elkarrizketa mahaitan banatu zen. Lehenengoa, arrazakeriaren aurkakoa, Fernanda Candida Esteves psikologo komunitarioa, arrazakeriaren aurkakoa eta feminista dekolonialaren eskutik izan zen, Paula del Cid Guatemalako defendatzailearekin batera. Bigarren mahai-inguruan, LGTBQ+ identitateen gainekoa, Alex Izán Hernández Valladares Honduraseko defendatzaileak eta Angela Mariela Romero Guatemalako defendatzaileak hartu zuten parte.

1. Mahaia: Mundua eraldatzeko arrazakeriaren aurkako feminismoa .

Feminismo zuri eta hegemonikoak soilik ahaldundu ditzake emakumeak?

Fernandak ireki zuen jardunaldia, bere arbasoak feminismo zuriaren eredu hegemonikoarekin identifikatzen ez direla aldarrikatuz, kanon hegemonikoaren parte izan gabe bizitza osoan feminista izan diren emakume arrazializatuak izan baitira. Feminista gisa identifikatzen ez diren emakume arrazializatu askok gizartearen estatus quo-arekin hausten dute. Garrantzitsua da emakume batzuek dituzten pribilegioak aitortzea eta onartzea, batez ere sozialki arrazializatuak ez direnak.





“Emakumeak emakume gisa babestuta senti daitezke, baina ez pertsona arrazializatu edo migratzaile gisa.” Feminismoa emakume guztiak barne hartzen dituen mugimendu askotarikoa bilakatu behar dugu.



Guatemalan
"feminista"
terminoak beldur
handia ematen du.
Hori dela eta,
Asanblada Feminista
bezalako espazioak
sortu ziren,
feminismoaz eta
gorputzaz
eztabaidatzen den
espazio seguru bat,
alegia.

Ondoren, Paulak kazetaritza erabat patriarkala dela aldarrikatu du, eta, hori dela eta, La Cuerda-ren helburua kazetaritza feminista egitea izan zen. Horretarako, feminismoa hainbat begiradatik aztertzeaz arduratu ziren.

2. Mahaia: LGTBQ+ identitateentzako Ongi Bizitze eredua

Angelak eta Alexek Latinoamerikako trans pertsonen egoeraz hitz egin zuten, batez ere Guatemala eta Hondurasen kasuak jorratuz. “Trans pertsonen egoera zaila da Latinoamerikan”, ez dago inklusiorik Estatuaren sistemetan eta ezta gizartearen espazio askotan ere. Adibidez, trans komunitateek ez dute izena aldatzeko eskubiderik, hezkuntza erakundeetatik baztertuak dira, mugak eta diskriminazioa ditu osasun sisteman sartzeko. Horrez gain, batzuetan, bainu publikoak erabiltzea debekatuta dute ere.



Bigarren eguna: maiatzak 24

Bigarren egunean, Chiapaseko Juana Garcia Flores, Emaus Gizarte Fundazioko Aizpea eta Lara, Donostiako Tatiana eta Marling, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako "Etxeko Langileen Taldekoak" eta Guatemalako Iliana Tzin Quixchan izan ziren parte hartzaileak.

1. Mahaia: Ekonomia sozial eta solidario baten alde, bizitzaren zerbitzura

Monolaborantzak oihana eta biodibertsitatea agortzen ari dira Chiapas kultura anitzez betetako espazioa da; emakumeek pertsonen iraunkortasuna eta ingurumena zaintzen dute. DESMITik laborantza agroekologikoak sustatzen dira, tokian tokiko

komunitateekin proiektuak eginez. Gaur

egun, komunitate askok ekologikoki

lan egiten eta ekoizten dituzte

beren laborantzak. Lurraren

propietateari dagokionez,

emakumeek gizonek

baino aukera gutxiago

izaten jarraitzen dute,


estatuaren lurrak

bakarrak izan daitezke

haien jabetza.



Ekonomia zirkularrak gaur egun aurrez aurre ditugun arazo klimatiko eta sozialei aurre egiten die. Emausek bigarren eskuko gaien erosketa sustatzen du, eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta bizi-kalitatea hobetzen lan egiten du, lan egonkor finantzario eta legalen bidez, eta hainbat formakuntzarekin laguntzen die.



2. Mahaia: Indarkeriaren aurrean: Zaintzak, Osatzea eta Osasun Integrala

Guatemalako bake akordioak sinatzean, emakume askok beren eskubide guztien alde borrokatzen hasi ziren, indarkeriatik libre bizitzea eta gainditze pertsonala lortzea barne. Genero indarkeria jasan zuten emakumeek eta neskatzek ez zuten arreta eta babesa emango zien estatuko legerik; beraz, emakumeak etengabeko arriskuan zeuden eta laguntza integraleko sareak sortu behar ziren.

Emakume asko emakume eta pertsona gisa baliogabetzen dira, lana, adimena, fisikoa, emozioa eta sexu-indarkeria onartuz.



Subjektu politikoa naiz

Autozainketa sendatze eta
erresistentzia prozesu bat da
emakumeontzat.

Sendatzea ekintza

politikoa da



Zainketen ildo beretik jarraituz, SOS Racismo Etxeko Langile taldeak erakundeak etxeko langileen duintasuna sustatzen duela aipatu zuen, haien lan eskubideen eta autozainketaren beharraren inguruan kontzientzia hartuz. Etxeko langile gehienak Latinoamerikatik etorriak dira, eta arrazakeriari eta kolonialismoari aurre egin behar diete egunero; beren familiak jatorrizko herrialdeetan mantentzen dituzten emakumeak dira.

Nola sustatzen dute Ongi Bizitze eredua Hego eta Ipar globalean antolatutako kolektiboek?

Latinoamerikako testuinguruan, sororitatea eta komunitateen laguntza trans pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko estrategia bilakatu dira. Hala ere, istorioak nola kontatzen diren eta horien perspektiba propioak ezagutzea garrantzitsua da.

Hedabide komunitarioek ez dute soilik generoaren zeharkako begirada izan behar, LGTBQ+ kolektiboko emakume eta pertsonen ahotsa eta gorputzak ere modu aktiboan barneratu behar dituzte, dinamika zapaltzaileen eta botere egitura tradizionalen eraldaketan ekarpena egiteko. Akademiari dagokionez, feminismoa egiteko eta feminista aldarrikatzeko beste modu eta eredu batzuez hitz egiteko ezinbestekoa da beste latitude batzuetako diskurtsoak eta jarrerak aitortzea eta ezagutzea. Mendeetan zehar nagusi izan den status quo-a zalantzan jartzea, eta jarrera aktiboa hartzea kolonialismoaren eta haren kolonizazio modu berrien aurrean, arrazaren hierarkiak sistemaren zati handi bat sostengatzen baitu eta desberdintasun sistematikoak sortzen ditu talde sozial espezifikoentzat.

Azken finean, autozainketa estrategia duintzailea ere izan daiteke, emakumeak subjektu politiko aktibo gisa aitortzea ahalbidetzen duelako, haien lan eskubideak exijitzen dituelako espazio seguruak sortuz.

Ongi Bizitze ereduaren aipuak

Ikuspegi dekoloniala eta hegoaldeko feminismoen ikuspuntuak integratzea eta sustatzea: feminismoaren tokiko ideietatik haratago joatea, eskubideetara hurbiltzeko beste modu batzuei bide emateko, eta emakume guztientzako gizarte justuago, duinago eta bidezkoago bat eraikitzeko.

Zaintza integrala: laguntza komunitarioko sareak indartzea, LGTBIQ+ kolektiboko trans pertsonen, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eta bazterkeria soziala pairatzeko arriskuan dauden pertsonen laguntza emateko, legezkoa, soziala, emozionala, psikologikoa eta fisikoa den akonpainamenduaren bitartez.

Ekonomia zirkular eta solidario sustatzeko estrategiak bilatzea: bigarren eskuko erosketan ekoizpen agroekologikoa babestea, iraunkortasuna, ingurumen justiziarekiko sentsibilizazioa, komunitate ongizatea eta gizarteratzea sustatzeko praktika gisa.

***“EZ DIRA GORPUTZAK
INTERSEKZIONATZEN, SISTEMAK BAIZIK”***

